

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

162/2020 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita Covid-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egiten diren emari eta dohaintzen zerga tratamenduari aplikatu beharreko interpretazioa.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 11. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenez, Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatu edo argitzeko xedapenak emateko ahalmena Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio soil-soilik.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 18. artikuluan xedatzen du ezen foru arauaren III. tituluari jasotzen diren zerga-pizgarriak titulu honekin ezarritako beharkizunak betetzen dituzten emari, dohaintza eta ekarpenei aplikatuko zaizkiela baldin eta haien hartzaileak honako hauek badira, besteak beste: Gipuzkoako Foru Aldundia, beste foru aldundiak, Estatua, autonomia erkidegoak, toki entitateak, eta aipatu diren administrazioetako organismo autonomo eta antzeko entitate autonomoak.

Hortik ondorioztatzen da ezen Covid-19aren aurkako borrokan laguntze aldera Gipuzkoako Foru Aldundiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateei, besteak beste, egiten zaizkien emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzu prestazioek irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 21. artikuluan eta haren hurrengoetan jasotzen diren kenkarietarako eskubidea ematen dutela.

Osakidetzari dagokionez, nahiz eta erakunde hori zuzenbide pribatuko entitate bat izan, aintzat hartu beharra dago Gizarte Segurantzaren Kudeaketaz arduratzen den entitate publiko bat dela, zeinak bereganatuak baititu bere garaian Osasunaren Institutu Nazionalari (Osasuna Kudeatzeko Institutu Nazionala gaur) osasun arloan zegozkion eskumenak; hortaz, ulertu behar da ezen osasun arloan transferitu zaizkion berariazko funtzioak garatzen laguntzeko Osakidetzaren alde zuzenean egiten diren emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzu prestazioei aplikagarriak zaizkiela, Gizarte Segurantzaren aldeko ekarpen gisa, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 21. artikuluan eta haren hurrengoetan mezenasgoaren alde arautzen diren zerga-pizgarriak.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo. Covid-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egiten diren emari, dohaintza, ekarpen eta

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 162/2020 de 22 de abril por la que se aprueba la interpretación aplicable al tratamiento tributario de los donativos y donaciones realizadas a favor de Osakidetza para colaborar en la lucha contra el Covid-19.

El apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que en el ámbito de las competencias de la Diputación Foral, la facultad de dictar disposiciones interpretativas o aclaratorias de las normas forales y demás disposiciones en materia tributaria corresponde de forma exclusiva a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

El artículo 18 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, dispone que los incentivos fiscales previstos en el título III de la misma norma foral serán aplicables a los donativos, donaciones y aportaciones que, cumpliendo los requisitos establecidos en este título, se hagan en favor de, entre otros la Diputación Foral de Gipuzkoa, las otras diputaciones forales, el Estado, las comunidades autónomas, las entidades locales, así como los organismos autónomos y las entidades autónomas de carácter análogo de las Administraciones citadas anteriormente.

De ello se deduce que los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios realizadas para colaborar en la lucha contra el Covid-19, en favor, entre otros, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco o de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, darán derecho a la práctica de las deducciones contempladas en los artículos 21 y siguientes de la citada Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En lo que respecta a Osakidetza, aun cuando la misma es una entidad de derecho privado, en la medida en que se trata una entidad pública encargada de la gestión de la Seguridad Social, que tiene asumidas las competencias que, en su momento, correspondían al Instituto Nacional de la Salud en materia sanitaria (actual Instituto Nacional de Gestión Sanitaria), cabe entender que los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios que se realicen directamente en favor de la misma (de Osakidetza) con objeto de colaborar en el desarrollo de las funciones específicas que tiene transferidas en materia sanitaria pueden beneficiarse de los incentivos fiscales al mecenazgo regulados en los artículos 21 y siguientes de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, como aportaciones a la propia Seguridad Social.

En consideración a lo anterior,

RESUELVO

Primero. A los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios destinadas a colaborar en la

doako zerbitzu prestazioei irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak 21etik 24ra bitarteko artikuluetan jasotzen diren zerga onurak aplikatuko zaizkie.

Bigarren. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 25. artikuluan xedatutakoarekin bat, entitate onuraduna behartuta dago emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzu prestazio kengarrien eraginkortasuna justifikatzera artikuluko horretan aipatzen den frogagiria aurkeztuz, eta, gainera, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onetsitako eredu informatiboa (182 eredu) aurkeztu beharko du.

Hirugarren. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 11. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa oinarri hartuta, foru agindu honek ondorio lotesleak izango ditu Zerga Administrazioako organo guztientzat «Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN» argitaratzen den egunetik aurrera.

Aplikazio denborari dagokionez, foru aginduak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzu prestazioen gainean izango ditu ondorioak.

Donostia, 2020ko apirilaren 22a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(1885)

lucha contra el Covid-19, realizadas en favor de Osakidetza, les serán de aplicación los beneficios fiscales previstos en los artículos 21 a 24 de la Norma Foral 3/2004 de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Segundo. De conformidad con lo indicado en el artículo 25 de la susodicha Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, la efectividad de los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios deducibles ha de ser justificada mediante la presentación por parte de la entidad beneficiaria del de los justificantes previsto en el citado artículo, además de la presentación del modelo informativo aprobado al efecto por orden foral del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas (Modelo 182).

Tercero. Basándose en lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 11 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la presente orden foral tendrá efectos vinculantes para todos los órganos de la Administración tributaria a partir de la fecha de su publicación en el «BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa».

En cuanto al ámbito temporal de aplicación, la orden foral desplegará sus efectos para los donativos, donaciones aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios realizadas a partir de 1 de enero de 2020.

San Sebastián, a 22 de abril de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(1885)